

GAIXOTASUN EZ-INFEKZIOSOAK

GOGORATU! GAIXOTASUN EZ-INFEKZIOSOAK KUTSATZEN EZ DIREN GAIXOTASUNAK DIRA, EZIN DIRA PERTSONEN ARTEAN KUTSATU (NO SE PUEDEN CONTAGIAR).

1. ARIKETA: Lotu definizioarekin

TUMOREAK ETA MINBIZIA

Substantzia toxikoek (drogek, pozoiak, gas toxikoak) sortzen dituzte.

BIHOTZEKO GAIXOTASUNAK

Ebakiak (cortes), erredurak (quemaduras), hausturak (roturas), zaintiratuak (esguince) eta horrelakoak dira.

ALERGIAK

Elikadura txarrarekin eta gaizki jatearekin lotuta daude. Adibidez: obesitatea, desnutrizioa edo bitamina gabezia.

TRAUMATISMOAK

Zelulen ezohiko edo kontrolik gabeko hazkunde batek eragiten ditu, hau da, zelulak kontrolik gabe hazten dira. Erradiazio (eguzki izpiak esaterako) edo substantzia toxikoen (amiantoak) ondorioz ager daitezke, edo zelulek funtzionamendu txarra izatearen ondorioz.

INTOXIKAZIOAK

Zirkulazio aparatuari eragiten diote. Tronbosiak (arteria eta benak buxatzea edo ixtea), eta kardiopatiak (bihotzak behar bezala ez funtzionatzea). Gehiegiko estresak, bizimodu ez osasuntsua izateak, kirolak ez egiteak... sortzen ditu.

NUTRIZIO-GAIXOTASUNAK

Gorputzak zenbait alergenoren aurrean (polena, fruitu lehorrak, arraina...) dituen defentsen erreakzio neurrigabeak eragitea da.

SORTZETIKO EDO JAIOTZETIKO GAIXOTASUNAK

Autoestimu ezak (bere burua ez onartzea...), drogek, egoera zailak bizi izateak (heriotzak), estresak... sortzen dituzte. Ohikoenak bi dira: Depresioa: tristezia eta ezertarako gogorik ez izatea denbora luzean zehar. Antzietatea: gehiegizko urduritasuna eta beldurra.

GOGO ALDARTEAREN GAIXOTASUNAK (Estado de ánimo)

Jaiotzetik ditugun gaixotasunak dira. Adibidez: Daltonismoa: gaixoari koloreak bereiztea kostatzen zaio. Down sindromea: Adimen atzerapena eragiten du besteak beste.

2. ARIKETA: Interpretatu.



A irudia



B irudia

- a) Zer gaixotasun garatu dezake A irudiko elikagaiak kontrolik gabe jateak?
- b) Zer gaixotasun eragin dezake B irudiko egoerak?
- c) Zer jateko eskatuko zenioke A irudiko pertsonari?
- d) Zer egin beharko luke B irudiko pertsonak kolpeak ekiditzeko (evitar)?

3. ARIKETA: Aurkitu interneten Eskorbutoa zer den eta lotu erantzunarekin.

- a) Eskorbutoa A bitaminaren gabezia da.
- b) Eskorbutoa C bitaminaren gabezia da.
- c) Eskorbutoa A eta C bitaminaren gabezia da.
- d) Eskorbutoa ez da gaixotasun bat, musika talde bat baizik.